



## EUSKARA IKASTAROAK EGITEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDI PUBLIKOA

### **2023-2024 ikasturtea (2023ko irailetik 2024ko abuztura bitarte egindako ikastaroak)**

Zizur Nagusiko Udalak, Euskara Zerbitzuaren bitartez, euskara ikasteko laguntza ekonomikoak emanen ditu, ondoko oinarri hauei jarraikiz

### OINARRIAK

#### **LEHENDABIZIKOA.- Deialdiaren xedea.**

1.1. Zizur Nagusiko udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantzak, (2008ko 69. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, ekainaren 4an argitaratua), 2.8 artikuluan, helburu berezi gisa ondoko hau aipatzen du: *“Euskararen sustapenerako bestelako jarduerak bultzatzea, ordenantzaren xedearekin lotura dutenak”*.

1.2. Deialdi honek arautzen dituen bekek euskara ikasteak sortzen dituen gastuak hein batean finantzatzea dute xede.

1.3. Halaber, deialdi honek 33/2002 Foru Legean, azaroaren 28koa, emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna sustatzekoa, jasota dagoen emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren printzipioari jarraituko dio.

#### **BIGARRENA.- Diruz lagun daitezkeen jarduerak eta emateko prozedura.**

2.1. Diruz lagunduko dira ikastaro estentsiboak nola trinkoak edo barnetegiak.

2.2. Eskatzaileek maila bereko ikastaro baterako dirulaguntza jaso ahalko dute bi deialditan soilik. Hau da, bigarren aldiz jaso ahalko dute dirulaguntza aldeztetik diruz lagundutako maila baterako.

2.3. Deialdi honetan dirulaguntzak emateko ezarritako prozedura banako ebaluazioaren araubidean tramitatuko da (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.1 artikulua) eta oinarri arautzaile hauetan ezarritakoari lotuko zaio.

#### **HIRUGARRENA.- Dirulaguntzaren zenbatekoa.**

3.1. Dirulaguntzak 2024ko aurrekontuko *euskara ikasteko laguntzak* izeneko 1 33501 48000 kontu-sailaren kargura ordainduko dira. Xede horretarako gehienez ere 3.500 euro bideratuko dira.

Laguntzak baremo ekonomiko honi jarraikiz emanen dira:

PCE <10.001 € .....	%75
PCE 10.001 € eta 15.000 € artean.....	%60
PCE 15.001 € eta 20.000 € artean.....	%50
PCE >20.000 € .....	%40





PCE familiaren Per Capita Errenta da, eta haren balorazioa deialdi honen 7.1 atalean adierazi bezala egiten da.

#### **LAUGARRENA.- Onuradun izaera erdiesteko baldintzak.**

Onuradun izaera erdiesteko, eskatzaileek, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluko betebeharrak orokorrean gain, ondoren aipatzen diren betekizun espezifikoak ere bete beharko dituzte, dirulaguntzaren xede diren jardueren arabera:

4.1. Euskara ikasteko dirulaguntza baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak eskatzen ahalko dute:

- a. 16 urtetik gorakoa izatea.
- b. Zizur Nagusian erroldatua egotea, gutxienez ere urte bateko antzintasunarekin laguntza eskatu den egunetik kontatua eta laguntzeko eskatzen den ikastaroak irauten duen bitartean.
- c. Gutxieneko asistentzia-portzentajea %80koa izatea.

4.2. Espresuki baztertuak gelditzen dira Zizur Nagusiko biztanleak izanik, administrazio publikoren batean lan egin eta euskalduntze plan espezifikoaren batean sartuak dauden pertsonak.

#### **BOSGARRENA.- Eskakerak aurkezteko epea eta tokia.**

5.1. Eskakerak iraileko azken ostirala arte aurkeztuko dira, eskabidea sinaturik, deialdiarekin batera dagoen eredu normalizatuan. Eskabideari deialdiko seigarren oinarrian ezarritako agiriak eta informazioak gehituko zaizkio.

5.2. Eskakerak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

5.3. Aurkeztutako eskaerak ez baditu biltzen deialdi honetan ezarritako baldintzak eta agiriak, interesdunari eskatuko zaio hori zuzentzeko gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean, eta horrela egin ezean, haren eskabideari uko egiten diola ulertuko da, ebazpena eman ondoren, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 42. artikuluan aurreikusitako irri jarraiz.

5.4. Eskakerak Zizur Nagusiko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira.

#### **SEIGARRENA.- Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiri eta informazioak.**

6.1. Eskabidearekin batera ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a. Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- b. Familiaren diru-sarrera gordinak egiaztatzen dituen agiria.
- c. Ikastaroa antolatzen duen entitatearen ziurtagiria, haren baldintzak zehaztuta: iraupen data, maila, ikastorduen kopurua, ikastaroaren kostua eta eskatzaileak izan duen asistentzia-portzentajea.
- d. Matrikularen ordainagiria (banku entitateak luzatua). Bertan matrikularen %100 ordaindua dela egonen da jasota.
- e. Eskatzailearen kontu korrontearen zenbakia (24 digitu).
- f. Zizur Nagusiko Udaleko eta Nafarroako Ogasun Publikoko zerga betebeharren ordainketa eguneratuak izatea.





- g. Erantzukizunpeko adierazpena (1. eranskina) eta Helburu bererako dirulaguntza eskatzeko erantzukizunpeko adierazpena (2. eranskina).

6.2. Orobat, hala badagokio, ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a. Erretiratuak edo pentsiodunak badira, edo lan ezintasuneko egoeran edo baliaezintasun egoeran dauden langileak badira, eskatzaileek eskaera aurreko hamabi hilabeteetan jasotako pentsioaren edo prestazio ekonomikoaren ziurtagiria aurkeztuko dute.
- b. Norberaren konturako langileak badira, eskatzaileek Gizarte Segurantzarendako urteko kotizazioaren ziurtagiria aurkeztuko dute, bertan jasota kuotak kalkulatzeko urteko oinarria eta diru-sarrerari buruzko aitorten pertsonala.
- c. Langabezian badaude, eskatzaileek Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPE) luzatutako ziurtagiria aurkeztuko dute, eskaera aurreko hamabi hilabeteetan jasotako prestazioak egiaztatuz.

**ZAZPIGARRENA.- Eskaeren balorazioa.**

7.1. Eskaeren balorazioa honela egingen da:

- a. Familiaren diru-sarrera gordinak kontuan hartuko dira (errenta aitorteneko 507, 8810 eta 8808 laukitxoaren batuketa ken 708 laukitxoa) eta familia unitateko pertsonen kopurutik zatituko dira.
- b. Familiaren diru-sarrera gordintzat hartuko dira beka eskatzen duen familia unitatetik heldu direnak. Eskatzailea bere/n aita/k, ama/k eta/edo adopziozko familia edo abegi-familiarekin bizi bada, horiek sortzen dituzten diru-sarrerak ere jasoko dira. Ez dira kontuan hartuko anaiek, arrebek edo eskatzailearekin bizi baina ahaidetasun harremanik ez duten pertsonen sortutako diru-sarrerak.  
Diru-sarrerak honela frogatuko dira: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko azken aitortenaren edo aitortenaren fotokopia konpultsatua, edo, Foru Ogasunaren ziurtagiria, aitortpena ez dela egin ziurtatzen duena, aurkeztera beharturik ez dauden kasuetan. Bestela, eskatzaileak familiak erdietsitako diru-sarrera gordinen inguruko zinpeko aitortpena aurkeztuko du, agiri bidez justifikaturik.
- c. Aurrekoa alde batera utzita, Udalak eskatzen ahalko ditu beharrezkotzat jotzen dituen frogabide guztiak, eskatzaile bakoitzaren familiaren diru-sarrerak egiaztatze aldera.

7.2. Eskaerak urterokoak izango dira, eta Udalak eskatzen den ekitaldi ekonomikoan dituen aurrekontu-baliabideen arabera emango dira.

7.3. Nolanahi ere, aurrekontuan dagoen diru erabilgarriaren eta eskatzaile kopuruaren arabera, beharrezkoa bada, onuradun bakoitzari dagokion ekarpena proportzioan murriztuko zaio.

**ZORTZIGARRENA.- Eskaerak aztertu eta ebaztea.**

8.1. Aurkezten diren eskaerak Euskara Zerbitzuak baloratuko ditu; honek, hain zuzen, gauzatuko ditu ebazpen proposamena egiteko kontuan hartzen diren datuak zehaztu, eskuratu eta egiaztatzeko behar diren jarduketak guztiak.

8.2. Alkatetza ebazpen bidez emango dira dirulaguntzak.

8.3. Udalaren dirulaguntza jasotzea bateragarria da helburu bererako beste dirulaguntza batzuk jasotzearekin, edozein administrazio edo erakundek emandakoak, eta Zizur Nagusiko Udalak ofizioz





egiaztatuko du.

Dirulaguntzaren zenbatekoak, bakarka edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu. Halakorik gertatuz gero, bidezkoa izango da lortutako soberakina itzultzea, bai eta dagokion berandutze-interesa eskatzea ere.

#### **BEDERATZIGARRENA.- Ebazpenaren epea, jakinarazpena eta aurkaratzea.**

9.1. Ebazteko epea gehienez ere bi hilabete izanen da, eskaerak aurkezteko data bukatzen denetik hasita.

9.2. Epe hori iraganik ebazpen espresik ematen ez bada, eskaera ezetsizat jotzen ahalko du eskatzaileak.

9.3. Laguntza emateko ebazpena, behar bezala arrazoitua, parte-hartzaile guztiei jakinaraziko zaie, honako hauek adierazita: deialdia, dagozkion aurrekontu-kreditua eta egotziko zaion programa, pertsona onuraduna, ematen den diru-kopurua eta dirulaguntzaren xedea.

9.4. Ebazpen horrek amaiera emango dio administrazio bideari, eta haren aurka, aukeran, honako errekurtsio hauekiko bat aurkeztu ahal izango da:

- a. Berraztertze-errekurtsioa, egitate administratiboa egin duen organoaren aurrean, jakinarazi eta biharamunetik aurrera hilabeteko epean.
- b. Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Nafarroako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian edo Salan, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik bi hilabeteko epean.
- c. Gora jotzeko errekurtsioa Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean, ebazpena jakinarazten den egunetik ondoko hilabeteko epean.

#### **HAMARGARRENA.- Laguntzen ordainketa.**

10.1. Emandako zenbatekoa, dirulaguntzen ebazpena egin eta biharamunetik hilabeteko epean ordainduko da.

#### **HAMAIKAGARRENA.- Datuen egitasunaz.**

11.1. Eskaeran datuen bat ez emateak edo jasota daudenetan faltsukeriaz aritzeak eskabidearen deuseztasuna ekarriko du, egileek izaten ahal duten erantzukizuna ukatu gabe.

#### **HAMABIGARRENA.- Onuradunen betebeharrak eta ez-betetzearen ondorioak. Itzulketa.**

12.1. Deialdiaren oinarrietako bat betetzen ez bada edo eskatutako agiriak zehaztutako epean aurkeztu ez bada, edo garrantziko irregulartasunik atzematen bada pertsona eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan, organo eskudunak dirulaguntza ezeztatu ahalko du eta jasotako kopuruak itzuli beharko dira.

12.2. Dirulaguntzaren onuradunek jasotako zenbatekoak itzuli beharko dituzte Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35. artikuluan aipaturiko kasuetan eta bertan ezartzen diren baldintzetan.

#### **HAMAHIRUGARRENA.- Datu pertsonalen trataera.**

13.1. Laguntza hauek eskatzen dituztenek baimena ematen diote Zizur Nagusiko Udalari deialdian ezarritako helburuak bete daitezen beharrezko datu pertsonalak biltzeko.





Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikularekin bat, aditzera ematen da dirulaguntzen fitxategi bat dagoela, Zizur Nagusiko Udalak euskara ikastea sustatzeko bultzaturiko eta gauzaturiko dirulaguntzen inskripzio, erregistro eta kudeaketa helburu.

Ez da aurreikusten bildutako datuen inolako lagapenik. Horrelakorik gertatuz gero, lagapena egin baino lehen zure aurretiko baimena beharko da.

Fitxategiaren arduraduna Zizur Nagusiko Udala da. Datuetan sartzeko, haiek zuzentzeko, ezeztatzeko edo aurkaratzeko eskubidea baliatzen ahalko duzu Kultura Zerbitzuaren lokaletan (Erreniega parkea, z.g. 31180 Zizur Nagusia)

---

Oinarri hauetan aurreikusi ez den orotan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritako arauak aginduko du.

---





**- 1 ERANKINA / ANEXO 1 -**

**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA / DECLARACIÓN RESPONSABLE**

Izen-abizenak \_\_\_\_\_ NAN,IFZ,AIZ  
Nombre-Apellidos \_\_\_\_\_ DNI, NIF, NIE \_\_\_\_\_  
Helbidea \_\_\_\_\_ P.K. \_\_\_\_\_  
Domicilio \_\_\_\_\_ C.P. \_\_\_\_\_  
Herria \_\_\_\_\_ Tfnoa. \_\_\_\_\_ Posta elektronikoa \_\_\_\_\_  
Localidad \_\_\_\_\_ Tfno. \_\_\_\_\_ Correo electrónico \_\_\_\_\_

BERE IZENEAN edo/o  ONDOKO HONEN ORDEZKARI GISA  
EN NOMBRE PROPIO EN REPRESENTACIÓN DE:

Izen-abizenak \_\_\_\_\_ NAN,IFZ,AIZ  
Nombre-Apellidos \_\_\_\_\_ DNI, NIF, NIE \_\_\_\_\_  
Helbidea \_\_\_\_\_ P.K. \_\_\_\_\_  
Domicilio \_\_\_\_\_ C.P. \_\_\_\_\_  
Herria \_\_\_\_\_ Tfnoa. \_\_\_\_\_ Posta elektronikoa \_\_\_\_\_  
Localidad \_\_\_\_\_ Tfno. \_\_\_\_\_ Correo electrónico \_\_\_\_\_

**2023/2024 ikasturtean euskara ikastaroak egiteko dirulaguntza publikoaren deialdiaren berri izanik. Teniendo conocimiento de la convocatoria pública de ayudas económicas para la realización de cursos de euskera. Curso 2023/2024.**

**ADIERAZTEN DU / DECLARA:**

- Betetzen dituela dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritako onuradun izateko baldintza orokorrak eta deialdian aurreikusitako baldintza espezifikoak.
- Ez dagoela dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako onuradun izateko debekurik.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.
- Konpromisoa hartzen duela eskatzen duen dirulaguntzaren zenbatekoa dirulaguntza emateko oinarri diren helburuak eta jarduerak betetzera bideratzeko.
- Que cumple los requisitos generales exigidos para obtener la condición de beneficiaria establecidos en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y los específicos previstos en la convocatoria.
- Que no se halla incurso en ninguna causa de prohibición para obtener la condición de beneficiaria de las previstas en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- Que se halla al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.
- Que se compromete a destinar el importe de la subvención que solicita al cumplimiento de los objetivos y actividades que fundamenta la concesión de la subvención.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, honako hau ematen eta sinatzen dut, Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido y firmo la presente,

Zizur Nagusia, / Zizur Mayor,

\_\_\_\_\_(e)ko \_\_\_\_\_(a)ren \_\_\_\_\_(e)an

a \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_

(Sinadura: / Firma:)

**Datuen babesa:** Prozedura administratiboaren tramitazioa kudeatzeko xedearekin erabiliko diren izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren erantzulea Zizur Nagusiko Udala da aurkeztu edo eskatu direnerako. Ez zaizkie hirugarrenei daturik emanen legezko betebeharren bat badago izan ezik. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo baliogabetzeko eskubidea duzu udaleko bulegoetara zuzenduz. Datuen tratamenduaren zerrrenda eta datuen babeserako informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: [www.zizurnagusia.eus](http://www.zizurnagusia.eus)

**Protección de datos:** El Ayuntamiento de Zizur Mayor es el responsable de tratamiento de los datos de carácter personal que se utilizarán con la finalidad de gestionar la tramitación del procedimiento administrativo para el que han sido presentados o solicitados. No se cederán datos a terceros salvo obligación legal. Tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos dirigiéndose a las dependencias municipales. Puede consultar el listado de tratamiento de datos y la información adicional y detallada sobre protección de datos en nuestra web: [www.zizurmayor.es](http://www.zizurmayor.es)





- 2 ERANSKINA / ANEXO 2 -

**HELBURU BERERAKO DIRULAGUNTZA ESKATZEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA /  
DECLARACIÓN RESPONSABLE DE SOLICITUD DE SUBVENCIÓN PARA EL MISMO OBJETO**

Izen-abizenak \_\_\_\_\_ NAN,IFZ,AIZ  
Nombre-Apellidos \_\_\_\_\_ DNI, NIF, NIE \_\_\_\_\_  
Helbidea \_\_\_\_\_ P.K. \_\_\_\_\_  
Domicilio \_\_\_\_\_ C.P. \_\_\_\_\_  
Herria \_\_\_\_\_ Tfnoa. \_\_\_\_\_ Posta elektronikoa \_\_\_\_\_  
Localidad \_\_\_\_\_ Tfno. \_\_\_\_\_ Correo electrónico \_\_\_\_\_

BERE IZENEAN edo/o  ONDOKO HONEN ORDEZKARI GISA  
EN NOMBRE PROPIO EN REPRESENTACIÓN DE:

Izen-abizenak \_\_\_\_\_ NAN,IFZ,AIZ  
Nombre-Apellidos \_\_\_\_\_ DNI, NIF, NIE \_\_\_\_\_  
Helbidea \_\_\_\_\_ P.K. \_\_\_\_\_  
Domicilio \_\_\_\_\_ C.P. \_\_\_\_\_  
Herria \_\_\_\_\_ Tfnoa. \_\_\_\_\_ Posta elektronikoa \_\_\_\_\_  
Localidad \_\_\_\_\_ Tfno. \_\_\_\_\_ Correo electrónico \_\_\_\_\_

**2023/2024 ikasturtean euskara ikastaroak egiteko dirulaguntza publikoaren deialdiaren berri izanik.** **Teniendo conocimiento de la convocatoria pública de ayudas económicas para la realización de cursos de euskera. Curso 2023/2024.**

**ADIERAZTEN DU / DECLARA:**

Deialdi honen helburu bererako beste Administrazio Publiko, Erakunde publiko, pribatu edo partikularrengandik, nazionalak zein nazioartekoak, inolako dirulaguntzarik eskatu edo lortu ez izana.  No haber solicitado ni obtenido ningún tipo de subvención de otras Administraciones Públicas, Entes públicos o privados o de particulares, nacionales o internacionales, para la misma finalidad que la de esta convocatoria.

Azpian adierazitako dirulaguntzak eskatu izana beste Administrazio Publikoetatik, Erakunde Publiko, pribatu edo partikularrengandik, nazionalak zein nazioartekoak, deialdi honen helburu berbererako:  Haber solicitado las siguientes subvenciones de otras Administraciones Públicas, Entes públicos o privados o de particulares, nacionales o internacionales, para la misma finalidad que la de esta convocatoria:

**Eskatutako dirulaguntzak: (adierazi data, erakundea, zenbatekoa): / Subvenciones solicitadas: (Indíquese fecha, entidad, importe)**

DATA / FECHA	ERAKUNDEA / ENTIDAD	ZENBATEKOA / IMPORTE

Azpian adierazitako dirulaguntzak lortu izana beste Administrazio Publikoetatik, Erakunde Publiko, pribatu edo partikularrengandik, nazionalak zein nazioartekoak, deialdi honen helburu berbererako:  Haber obtenido las siguientes subvenciones de otras Administraciones Públicas, Entes públicos o privados o de particulares, nacionales o internacionales, para la misma finalidad que la de esta convocatoria:

**Lasotako dirulaguntzak: (adierazi data, erakundea, zenbatekoa): / Subvenciones obtenidas: (Indíquese fecha, entidad, importe)**

DATA / FECHA	ERAKUNDEA / ENTIDAD	ZENBATEKOA / IMPORTE

Zizur Nagusia, / Zizur Mayor,  
\_\_\_\_\_(e)ko \_\_\_\_\_(a)ren \_\_\_\_\_(e)an  
a \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_

(Sinadura: / Firma:)

**Datuen babesa:** Prozedura administratiboaren tramitazioa kudeatzeko xedearekin erabiliko diren izatera pertsonaleko datuen tratamenduaren erantzulea Zizur Nagusiko Udala da aurkeztu edo eskatu direnerako. Ez zaizkie hirugarrenei daturik emanen legezko betebeharren bat badago izan ezik. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo baliogabetzeko eskubidea duzu udaleko bulegoetara zuzenduz. Datuen tratamenduaren zerrenda eta datuen babeserako informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: [www.zizurnagusia.eus](http://www.zizurnagusia.eus)

**Protección de datos:** El Ayuntamiento de Zizur Mayor es el responsable de tratamiento de los datos de carácter personal que se utilizarán con la finalidad de gestionar la tramitación del procedimiento administrativo para el que han sido presentados o solicitados. No se cederán datos a terceros salvo obligación legal. Tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos dirigiéndose a las dependencias municipales. Puede consultar el listado de tratamiento de datos y la información adicional y detallada sobre protección de datos en nuestra web: [www.zizurmayer.es](http://www.zizurmayer.es)

